

## Hilaren 25ean ekingo die Zarauzko Sanz Enea liburutegiak literatur solasaldiei

Oporrak amaitu eta ikasturte berriarekin literatur solasaldiei ekingo die Sanz Enea liburutegiak. Hain zuen, hilaren 25ean, asteazkenean, egingo dute euskaraz lehenbizikoa. Jon Maiaren Riomundo liburua izango dute parte-hartzaileek hizpide. Ohi bezala, Ane Mayozen gidatuko du saioa, eta irekia eta doan izango da, 18:30etik 20:00etara. Baldintza bakarra bete beharko dute parte-hartzaileak: liburua aurrez irakurrita edukitzea. Jakinarazi dute dagoeneko prest dituztela liburutegian maileguan eraman ahal izateko liburuaren hainbat ale zein datozen hitzorduen inguruko dossier-a.